



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2009-11-22**

VII URTEA 1.834. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa, Jose Mujika legorretarrantzat

**TOLOSA** Babarrunaren Asteko Azoka Bereziak jende ugari erakarri zuen atzo; Legorretara joan da aurten lehen saria

**BESTE SARIAK** Bigarren, Pedro Olano belautzarra izan zen; eta hirugarren, Anselmo Larrarte, Larraulgoa 4-5



Jokin Bildarratz, Mari Karmen Iradi, Nerea Letamendia, Jose Mujika -irabazlea- eta Pedro Olano -bigarrena-; Anselmo Larrartek ez zuen bere saria jaso. E. EZEIZA

**Plan Orokorrak  
40 etxebizitza  
eraikitzeko  
aukera  
emango du**

**ALTZO** 40 haueetatik  
24 tasatuak izango lirateke 7



Triangulon elkartu ziren. E. EZEIZA

**Gorostidiko  
langileek euren  
egoera salatu  
dute, beste behin**

**TOLOSA** Triangulon egin  
zuten elkarretaratzea atzo 6

## Etixerat: «Errepresioa areagotu egin da»

**TOLOSALDEA** Duela astebete Leidorren eginiko Batzar Nazionalen azken urtea «oso gogorra» izan dela ondorioztatu dute Etxerateko kideek 6

## Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €



Euskal pirata bihurriak gara;  
zatoz gurekin irriak abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01

• harpidetza@hitza.info

Bidalketa gastuak doan



PIRATAK  
DVDa  
18 €

hitza

# Hamaikagarrenez Hezkuntza eta Euskara



## » Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Hezkuntzaren inguruko hainbat gaien gaineko hausnarketa egitea deliberratu nuen hurrengo (gaurko) idatzirako, baina hara non, gure Hezkuntza arduradun nagusiak botatuko azken perlatu gogoa nahasi dit eta ezin gaiari heldu gabe pasa (bai, bada, kitbetiko lelo berarekin datozela... Atzera begiratuz konturatu naiz txoko honetan idazten daramazkidan hogeitaka testuetatik laugarrena edo izango dela gai berberari heltzen diodana; baina erraietara ino sartzan zaizkit gezur eta hitz demagogiko pozoitsu horiek besterik gabe pasatzen uzteko. Hala ere, arrazoirekin erantzuz

ten ahaleginduko naiz barrunbeierantzun gorri eginda).

Celaa andereak, «Hezkuntza sistema doktrinamendu nazionalista» ari dela adierazi zuen ozenki eta publikoki, jarraian «Elebitasun orekatua behar dugu» eransteke.

Hezkuntza arloan lanean dihardugun profesionalok ez eiz dugu gure lana profesionaltasunez betetzen, ez dugu nahikorik egiten «terrorismoaren» aurka (horrelakoak ere bota ditu normaltasun, zuzentasun eta orekararen jabe den gure «nagusiak»), abertzaletasunaren sehaska bihurtu ditugu gure eskolak eta euskara besterik ez diegu irakasten gure ume eta gazteei, gazteleira desagertzeko zorian jartzera ino.

Ez dakit zer nolako eskolaz ari den eta benetako errealitatea ezagutzen ote duen baina gure ikastetxetako irakasle gehienon erronka aniztasunari errespetua dioten pertsona aske, kritikoak eta ahalik eta hobekien prestatuak heztea da. Bide honetan gauza asko ho-

betu behar ditugu; ni neu, oso kritikoa naiz gure eskola ereduarekin (eta txoko honetako idatziak irakurri dituenak garbi asko ikusi du honez gero). Baina akatsak, tarteka egiten diren kanpo ebaluazioetan (PISA kasu) estatuko emaitzen batzbestekotik gora kokatzen dira gure ikasleen emaitzak; eta, hara non, sorpresa! Gaztelaniaz eginiko frogetan baita ere!

Nahikoa da! Ez gezur eta demagogia gehagorik, arren. Horrenbeste gustatzen zaizkizuen legeak hartu (Gernikako estatua, Euskal Eskolaren Legea...) eta ikusi bertan nolagarbi asko adierazten den gure komunitatean euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla eta denok dugula horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea eta administrazioak behar diren neurriak hartu behar dituela euskararen ezagutza bermatzeko. Ondoren datuetara jo eta esaiguzue hori betetzen ari ote den. Ez horixe! Nonbait lortzekotan, elebitasun «orekatuena» gurea bezalako eskualde euskadunetan lortzen

da, eta hala eta guzti, gurean ere, euskaraz trakets eta baldar ari tzen direngazteak ditugu zoritxarrez. Familiak hizkuntza eredu askatasunez aukeratzeko aldarriarekin, euskara ikasi behar ez izatea bultzatzen ari zarete, ez besterik. Garbi hitz egin ezazue!

Tristea da gai hauen itzulingeruan jardun behar izatea beti eta ez Hezkuntzan benetan garrantzia duten gaien gainean: nola egin genezakeen eskola porrota gutxitzeko? Zer egin dezakegu ikasleen gaitasun potentzialak bere gaitasun mailarik gorenara eramateko? Ikasle bakoitzaren gaitasun pertsonalari erreparatzen al diegu ikaste prozesuaren errotik moa norbanakoari egokituzko? Konturatu al gara noizbait gauzak gaizki egitea, akatsak egitea ez dela zigortu behar? (akatsa ikaste prozesuaren parte da) Zertarako bidaltzen ditugu etxerako lanak? Ikasle guzteei etxerako lan berdina bidali behar al dizkiegu? Etxerako lanekin zerbait lortzen dugu edo gelan ditugun aldeak zabaltzen doaz? Etabar luuze bat.

## P Pertsonaia

### Teresa Gonzalez, 'Pirula', 83 urterekin hil da

Gutxi izango dira Tolosan jaio eta Teresa Gonzalez ezagutzen ez zutenak. Izen horrekin agian ez zen ezaguna baina bere ezizena esanez gero denek ikusiko dute euren irudimenean, gozokiz betetako gurdian ondoan. *Pirula* zen bera, pertsonaia maitatua Tolosan.

Aste honetan, asteartean, 83 urte zituela hil zen *Pirula*.

Teresa Gonzalez, Tolosan jaio zen, San Juan kalean. Haurra zela ama hil zitzaion, eta txikitatik Belaten, Jesusen Mirabeen etxean. Aita, Julian Pirulo, berak egindako gozokiak saltzen aritzen zen kalean. Gainera, aipatzekoa da, oraindik ere mantendu egiten direla moldeak. Pirulok karta-sorta batekin zozketak egiten zituen eta gozokiak nahiz erroskilak banatzen zituen sari gisa. Horrela erakartzen zituen bezeroak. Teresa Gonzalez, bere aita bezala, 15 urterekin gozokiak saltzen hasi zen kalean. Baina, kalean saltzea debekatu zenean, Trianguloko arkupean jarri zuen bere txokoa, eta han saltzen zituen bere gozokiak. Azkenik, 65 urterekin jubilatzea erabaki zuen.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## A Asteko irudia



## «Ahozko hitzaren etxearen» aurkezpena

**VILLABONA** ● Aste honetan bertan aurkeztu dute Villabonako Mintzola Fundazioa. 2008ko urte amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Villabonako Udalak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak bat egin zuten egitasmo hau aurrera ateratzeko. Hala ere, lau erakunde hauek hasitako bideari, tarte honetan, beste bi babesle ere gehitu zaizkio, Kutxa eta Eusko Jaurlaritzak, hain zuzen ere. Aurkezpen ekitaldian jende ugari bildu zen. Estitxu Fernandez kazetaria izan zen aur-

kezle ekitaldian, eta parte hartu zuten ere, Markel Olano, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia; Maria Jesus Aranburu, Kultura eta Euskara Foru Diputatua eta Mintzola Fundazioko lehendakaria; Eusko Jaurlaritzako euskararen sustapenerako sailaren zuzendaria den Lourdes Auzmendi; Josune Zabala, Mintzola Zuzendaria; Maixabel Arrieta, Villabonako alkatea; eta Fundazioko kide diren gainontzeko erakundeen goren ordezkariak. I. TERRADILLOS

## Z Zurea da hitza

info

### Otermin prokuradorearen kaltetuak

Otermin prokuradorearen kaltetuak bat naiz, gustura elkartuko nintzateke pertsonaia honek estafatu dituen jendeekin. Nere helbide elektronikoa [sorginzulo18@wanadoo.es](mailto:sorginzulo18@wanadoo.es) da.

**Junkal Lansalot Urtiberea (Tolosa).**

### Neurri positibo bat

Lehengoa Tolosako denda batean parking berria kotxea uzteko ordubeteko tiketa oparitu zidaten. Oso neurri egokia iruditzen zait. Horrela behintzat asteburuetan kotxea uzteko aukera txiki bat izango dugu. Izan ere, benetan lo-tsagarria iruditzen zait aparkalekuena. Ez du hitzik. Suhiltzaileetako hortan jarri duten kartelaren arabera parkin subterraneo horiek ez dute funtzionatzen. Beti leku libre pilabat dituzte. Esan didatenez oso garesti ateratzen da hor uzte kotxea. Noiz onartuko dute ez dela neurri egokia?

Bestalde, nork hartzen du dendariak bono horiek banatzearen kostua? Udalak ala eurek hartzen dute? Ez litzaidake batere justua irudituko dendarien kargu joango balitz. Falta zena! Ea norbaitek ematen didan erantzuna. Milesker.

**Elena.**

### Frantziako eskola batekin elkartrukea

Hirukideak bultzatu nahi dituen elkartrukeak direla eta, pasa den astean Frantziako talde bat izan dugu gurean. Hain zuzen ere, Frantziako ipar-ekialdean dagoen Luneville (Nancyren inguruan) hiriko 40 ikasle eta hiru irakasle etorri dira ingelesez jarduteko asmoz. Bitxia dirudien arren, gero eta zailagoa da Ingalaterrako eskolekin elkartrukeak burutzea eta azken aldi honetan gero eta maizago burutzen ari dira elkartruke mota hauek.



Luneville hiriko, Frantziako 40 ikasle eta hiru irakasle izan dira Euskal Herrian. HITZA



Lehen aldiz antolatu zuten Gaztelun Azoka Berezia. HITZA

Azken batean, gure ikasleek etorkizunean ingelesa erabiliko badute ez dutesoilik Ingalaterra edo Estatu Batuetako lagunekin erabiliko. Nazioarte mailan onartutako hizkuntza da ingelesa eta edozein herrialdetako biztanleekin arituko dira lanean zein aisialdian. Aipaturiko hau gure lehenengo esperientzia izan da ikastetxe honen eta primeran aterata da. Frantsesak, Euskal Herriko hainbat toki ezagutzeaz gain (Zumaia, Ekain, Gernika, Bilbo eta Donostia), gure eskolan izan dira eta bertan Euskara saio bat jaso eta ingelesezko irratseaio bat grabatu dute gure ikasleekin batera.

Azkenik, Hirukideko ikasleak (DBHko 4. mailakoak) Frantziara udaberrian joango direla azalduko dugu.

**Hirukide ikastetxea.**

### Ibarrako merkatarien idatzia

Ibarrako merkatariak hainbatean bildu gara udaletxeokoen eta gure duda eta kezak azaldu nahi ditugu TAO eta ZABORREN ZERGAREN inguruan.

TAO:

Herriko dendari eta hosteleroen gehiengo batek bilera bat egin genuen udaletxeo kideekin. Bertaratutakoak Txelo Romero alkatea, Victoria Rodriguez eta Jose Lusi Cid zinegotziak eta Pilar Del Valle udaletxeo aholkularia izan ziren. Bertan, gure desadostasuna agertu genien udaletxe honek erabakiak hartzeko duen moduarekiko.

Tolosako merkatariak Ibarrran egiten duen itzala dela eta, udalari herriko komertzioak kon-

tuan hartzea eta gure aldeko jarrrera eskatzen dizkiogu. Beraien erantzuna TAO sistemaren inposaketa izan da, gure aldetik inongo partaidetzarik gabe hartutako erabakia izan baita.

Udal taldearekin bildu ginenean, TAO zerbitzua 6 hilabetetara mugatu eta dohakoa izango dela hitz eman ziguten, epe hau igarutakoan balorazio bat egiteko berri elkartuko ginelarik. Aldiz, Gipuzkoako Boletín Ofizialean, 2009/10/13 datarekin, TAO sistemaren gestioaren adjudikazioaren berri ematen dute, non gure kezka areagotu den, adjudikazio hau 2 urtetakoa baita, 3 urtetarainoko luzapenarekin. Iruzur egin nahi al digu alkateak? Hala ez balitz, esandako hitzak idatzi batean argitaratu ditzala eskatzen diogu.

Bestalde, Ibarra izango litzateke 4200 biztanle azpitik TAO sistema ezartzen duen herri bakarrinetakoa. Gainera, udaletxeak berak ziurtatu zigun TAOak galera ekonomikoak suposatuko ziz-

kiela. Nork ordainduko du galera hau? Ibarrrak zerga gehiagorekin? Hala, guztiok ordaindu beharko dugu bertako TAO txarrela? Egoera honen aurrean, merkatariok uste dugu TAOa ez dela soluzioa, ez bizilaguntzat, ezta udaletxearentzat ere.

**ZABORREN ZERGA:**

Zerga hau ibartar guztiok ordaintzen dugu, bakoitzaren famili ekonomia zailtasunez gain. Halere, 2009an zerga hau %20a igo dute eta datorren urtean beste %20a igo nahi dute. Konturatzen al da udal talde hau garai zailak direla herriarrantzat krisia dela eta? Tolosa eta Donostian kasu, zerga tasa igoerari ez diote %20a aplikatu. Herri hauek adibidetzat har ditzala eskatzen diugu Ibarrrako udaletxeari eta beraien neurriak neurtu ditzatela.

Hau dela eta, herriko dendetan sinadura bilketa masibo bat marxtan da. Zuen elkartasuna adierazteko, hurbildu zaitezte sinatzeraz!

**Ibarrako merkatarien %98,80.**

### Azoka Berezian parte hartu zutenei eskerrak

Gazteluko Udalak eskertu nahi ditu pasa den hilaren 15ean Azoka Berezian parte hartu zuten herritarrak, eta bertara gerturatu zirenak. «Lehendabiziko aldiz egin da aurten, eta guztiaren laguntzarekin azoka eguna oso polita izan zen», adierazi dute.

**Gazteluko Udala.**

## Hilberriak

### BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA



ANDREA

Urte goxoak urte bixiak gu beti elkarren lagun ta zu Bakartxo izan zaitugu andereñotan txapeldun nahiz ta aparte eraman behar orain makiña bat egun buru barruan gordeko degu zein ederki pasa degun



**ALEGIAN**  
2009ko azaroaren 22an

**Alegiako Iturri Zahar Guraso Elkarte**  
Familiarekin bat egiten dugu une latz hauetan

### BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA



ANDREA



Rafa Iruretagoiena gure lankidearen emaztea. Ainhoa eta Leire gure ikasleen ama



**TOLOSAN**  
2009ko azaroaren 22an

**Laskorain ikastolako guraso, ikasle eta lankideak**

### BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA



ANDREA

Zure goxotasuna eta alaitasuna beti gurekin izango dira



**ALEGIAN**  
2009ko azaroaren 22an

**Alegiako eskolako ikasle, guraso eta lankideak**

### BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA



Zure alaitasuna eta goxotasuna beti gurekin



**Zure lagunak**

**TOLOSAN**  
2009ko azaroaren 22an

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# BABARRUN PREZIATUA



Sukaldariak 23 lapikoak behar bezala zaintzen eta triangeluko postuetan, hainbat produktu dastatu eta erosteko aukera izan zuten. E. LIZZUA

**Tolosa** » Lehiaketako lehen saria Legorretako Joxe Mujikak eskuratu zuen. Joxean Zubiaurek, 2.110 euro ordaindu zuen lakari bat babarrun.

**ENERIZMAIZ**

Egumargaritu orduko, Tolosako kaleetan eta batik bat, Triangelu, babarruna izan zen nagusi. Goizeko 08:00etarako sara, lapikoak eta sukaldariak prest zuden, lehiaketan parte hartzen zuten 23 babarrun ekizolek aurkeztenak babarrunak, poliki-poliki prestatzen joateko. Urtero legez, Babarrun Astea, Tolosako Babarrun Ekizoi-

jo aritu ziren. Musika Eskolako musikariak ere, Tolosako kaleak alaitzen ibili ziren. 12:00etarako Babarrunaren kofradako kideek 60 kilo babarrun prestatu zituzten, bertan munitzen artean banatzeko. 25 kilo kofradari jarri zituzten, beste 25 kilo herengo ekizolek izan ziren eta 10 kilo Katalanietan kofradako babarrun burtiak izan ziren. Pasa den astean Bartzelonako Caldes d'Estreac herrian izan ziren Tolosako babarrunak eta orain badien etorri dira bertako babarrun zuriak, tolosarrok dastatzeko; ez zuten araklastarik ibai izan.

Tolosako Frontonjatetxeko sukaldariak erosi zituzten.

**Txapela jan ten hobereak**

Urtero bezala, Babarrunaren Azoko egunean, Txingurta Elkarteak, Txapela mark hobeto jantzi nahi duen arteko XI. Lehiaketa ospatu zuen. Bertan 33 parte-hartzaile izan ziren. 21 gizonetako eta 12 emakumez osatuta zuten parte. Espainiariaren arabera, emakumezkoen artean, lehena, 7 urteko Lucia Aranzabe izan zen, 29,5 puntuekin. Bere atzetik bigarren postuan Maite Sanchez sailkatu zen eta hirugarren postua, Maria Angeles Etxebarriak lortu zuen. Gizonetako artean lehena, 34 puntuekin, Xabier Gorikano izan zen. Bigarrena, 16 urtekin, Pablo Azurza izan zen eta hirugarren sailkatua Ignazio Iribarren izan zen. Parte-hartzaileei zaharrena Florentino Gasteci izan zen 91 urterekin eta gazteena berriz, Lucia Aranzabe 7 urterekin.

**Gaur ere babarruna nagusi**

Babarrunaren lehiaketa gastronomikoa ospatuko dute gaur. Gure Kirola elkartearen eskutik Triangelu izango da, 08:00etan hasiko da eta sari banaketa, 13:00etan egingo dute. Herri Bazkaria berriz, 14:30ean izango da Zerkaian 22. euren truke. Bertan, Tolosa-Galeariako armarriak izango dira eta Tolosako Udaleren agurra eta oroigarria jasoko dituzte 2009 denboraldira lortutako 8 banderengatik.

## Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen Gama

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14 - A - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com



Joxean Zubiaurek erosi zuen 2.110 eurutan eta Malira bideratu kodira. E. LIZZUA

Txapela onden jan ten dutenak. E. LIZZUA

60 kilo babarrun banatu zituzten bertaratuakoen artean. Bestetik San Franzisko kalean Liburuen Azoka egon zen. E. LIZZUA

## «Ilusio ikaragarria, bihar berriz ere sorotan aitzurrarekin lanean hasteko moduan nago»

**JOSE MUIJKA** » Babarrun ekizoiela

**Legorreta** » Atzokorekin bigarren aldiz jantzi du Txapela. Sariak, ukituean jarraitzeko indarra ematen die ekizolei.



E. LIZZUA

eta hala egiten dut. Sarean, pardu eta atzokorekin egiten dut. Aurtengo artxoan egindakoa izan da aurkitu dudana. **Ute izara izan da, eta?** Ez da batere ona izan, txarra izan da aurtengoa. Euriak ez du ia ezer egin eta itzargarriko berak egin zituen eta lorea alferrik geldu zuen. **Ilusio handia egingo du honelako sari jasotzeko?** Legorretan daukat. Hasiara botean Albitzuri hasi nintzen parte hartzen lehiaketan baina Albitzur kendu eta Legorreta bezala jarri zidaten bertan bizniz eta. **Baina non duzu baratza?** Legorretan daukat. Hasiara botean Albitzuri hasi nintzen parte hartzen lehiaketan baina Albitzur kendu eta Legorreta bezala jarri zidaten bertan bizniz eta. **Nola eriten duzu babarrun?** Niri babarrun ekitz gustatzen zait

eta hala egiten dut. Sarean, pardu eta atzokorekin egiten dut. Aurtengo artxoan egindakoa izan da aurkitu dudana. **Ute izara izan da, eta?** Ez da batere ona izan, txarra izan da aurtengoa. Euriak ez du ia ezer egin eta itzargarriko berak egin zituen eta lorea alferrik geldu zuen. **Ilusio handia egingo du honelako sari jasotzeko?** Legorretan daukat. Hasiara botean Albitzuri hasi nintzen parte hartzen lehiaketan baina Albitzur kendu eta Legorreta bezala jarri zidaten bertan bizniz eta. **Baina non duzu baratza?** Legorretan daukat. Hasiara botean Albitzuri hasi nintzen parte hartzen lehiaketan baina Albitzur kendu eta Legorreta bezala jarri zidaten bertan bizniz eta. **Nola eriten duzu babarrun?** Niri babarrun ekitz gustatzen zait

Lana ikaragarria du bai. Hala ere, neurria hartzen diago eta gustura aritzen naiz, orain gainera jubilatu nago. Batzuetan berak esalutu egiten zaitu, zeren ezin izaten da zuk nahi duzun bezala lan egin eta batzuetan nahi baino lan gehiago egin behar izaten da. **Zer eman die Elkarteak Tolosako Babarrunari?** Tolosako Babarrunari Elkarteak lagundu egin du. Indarra eta kolore handia eman dizkion. Preziozko igotzen joan da pitxakal eta honek elkarrean gauden eta babatzen dudan ere lagundu egin die. Demontzako izan da aberagarria.

## Babarrunaren azokak lagunduta jende ugari ibili da ohiko azokan

**Azoka** » Babarrunaren gain, azokan udako nahiz neguko barazkiak izan ziren nagusi atzokan.

**PABLO ALBERDI**

Atzoko azoka egunak babarrun usaina izan zuen. Tolosako kaleetako erregina izan zen babarruna. Eguraldiak ere horretan lagundu zuen eta larunbateroko bezereoz gain jendea bertira ere gerturatu zen azokara.

Baina babarruna eta bere sakrametuez aparte, barazki asko izan zen chilo azokan. Orotaniki ere, udarako produktuen azken ondarrak gertatzen dira: Ibarako piparrak, tomateak, bainak. Baina negukoak dituenak ere bati dira: zira, porruak, azalorea, zizerbak, bruselak... eta aurreko asteetako prezioen inguruan.

**» ATZOKO AZOKA**

**BERDURAPLAZA** Merk. Gares. Landareak

Azoka	8,00	10,00
Begonia	1,00	—
San Jose lorea	1,00	1,50

**BERTAKO PRODUKTUAK**

Perretxikoa	14,00	28,00
Ondoa	—	—

<b>Fruta</b>		
Kiwia	2,00	2,50
Gastana	2,00	3,00
Iribaurra	4,00	5,00

**Barazkiak (sarta)**

Tiula	0,80	1,00
Espinaka	3,00	3,50
Porrua	1,50	6,00

**Barazkiak (kiloa)**

Babarrun zaria	9,00	10,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00

**PRODUKTU EKOLOGIKOAK**

Sagana	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	4,00
Azurizak	3,50	—
Arrosa	1,90	2,00



KULTURA SAILKAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Eskualdeko Etxerateko kideek agerraldia egin zuten elkartearen urteko Batzar Nazionalaren balantzea egiteko. E. EZBEZA

## «Errepresioa areagotu» egin dela dio Etxeratek

**Politika** » Urte hau «oso gogorra» izan dela ondorioztatu dute joan den astean egindako urteko Batzar Nazionalan.

### ERREDAKZIOA

Joan den igandean Etxeraten bederatzigarren Batzar Nazionala egin zuten Leidorantzokian. Eskualdeko kideek plazaratutako datuen arabera, aurten, inoiz baino jende gehiagok hartu du parte, 850 senidek hain zuzen ere. Hori dela eta, tristetzat jo zuten datua, «honek, Espainiako eta Frantziako kartzeletan inoiz baino preso gehiago daudela adierazten baitu».

Batzararen balantze «gazia» egin zuten Etxeratekoek, «Amnistia Aldeko Mugimenduaren eta Etxeraten aurkako errepresioa areagotu egin baita». Elkartasunaren aurkako errepresioa gogortzearen adibidetzat argazkien aurkako afera aipatu zuten. Horren inguruan, «inongo oinarri juridikorik gabe, azken hilabeteetan, presoan argazkiak eramateagatik, isunak, atxiloketak eta kolpeak pairatu behar izan ditugu». Ongietorrietan ere «errepresioa areagotu» dela aipatu zuten, orain arte hauek egiten uzten bazuten ere, orain, azken bi urteetan, ez dute uzten.

Jon Anza ere gogora ekarri zuten Batzararen balorazioa egitekoan, eta «urtengo gertakari latzenetako bat bezala» aipatu zuten. «Anzaren desagerpenak adierazten du estrategia errepresi-

boa izugarria dela», azaldu zuten Jon Ijurkoko, Etxerateko kideak.

Herenegun egindako agerraldian eskerrak eman nahi izan zizkieten, Batzararen ostean egin zuten bazkarian parte hartu zuten guztiei. Jende askoren laguntza izan zuten horretarako.

### «Araketako» egiten hasi dira preso senideei

Azken bi-hiru hilabeteetan, Etxeraten eta oro har, presoan aurka ematen ari diren neurrien artean «araketa» azpimarratu dute elkarretakoek. Hala, kartzelan sartzeak, detektoreetatik igarotzeaz gain, duela bi-hiru astetatik hona, araketak egin nahian hasi dira. Horren aurrean, zenbait lagunek, neurri hauetatik ez igarotzea erabaki dute, eta ondorioz, Etxeratek jakitera eman duenez, bisitarik gabegerratu dira senideak.

Araketetaz hitz egitean, «haztarenetatik hasi, hau da ukituetatik, eta guztiz biluzteraino» egiten dutela salatu zuten Etxeratekoek. Honen aurrean, presoak txapeoak egiten hasi direla esan zuten, eta erantzunak kartzela guztietara hasiko direla zabalitzen agertu zuten. Honekin, Etxeratekoen ustetan, «presoan kolektiboari min eman nahi diote, eta gure artean dagoen ezinegona luzatu». Hau ikusita, guztiek bat egiteko prest daudela argitu zuten joan den astean egin zuten batzarrean, eta erabaki dute, «araketaren aurrean burua ez makurtzea». «Duintasuna mantentze aldera», ez beraingatik eta ezta presoengatik ere, hau ez dutela onartuko garbi utzi dute presoan ahaideek.

### Garmendia presoaren familia bisitarik gabe, etxera

Mikel Garmendia presoaren senitartekoek salatu dutenez, joan den asteburuan, astero bezala, 1.300 kilometro egitera, bisitara joan zirenean, bisabisaren debekua izan zuten. Sei familiak zuten bisita eguna, eta seiak, presoak ikusi gabe geratu ziren. «Horretarako eskubiderik» ez dagoela adierazi zuten bilabonatarren anaiek. Gaineratu zuten ere, paper bat sinatuarazi nahi zirela, azalduz, baimena ematen zutela araketa egiteko. Baina, hau ez sinatzea erabaki zuten, eta ondorioz, bisitarik gabe, etxera itzuli behar izan zuten.

Horrelako gertaeren ondorioz, «familiakoak gaizki geratzen badira ere, presoak ere oso egoera txarrean geratzen» direla gogoratu zuten Etxeratekoek. Gogorrena, beraien iritziz da, «duela urte batzuk egindako borrokaren ondorioz lortutako zenbait gauza, pixkanaka kentzen ari zaizkigula».

Araketa hauen aurrean, zenbait senide salaketak jartzen hasi dira. Atzo bertan, Custiseko espetxean dagoen Emilio Salaberria eskualdeko presoaren familiakoek arazo hau bera izan zuten eta salaketa jarri zuten.

### 2009 urtearen balantzea

Urte guztiko gertaeren inguruko balantzea egin zuten Leidorrentan, eta «pozgarrizab» jo zuten Bilbon, urtarrilean egindako manifestazioan bildu zen jendetza. «Inoiz baino jende gehiagok hartu baitzuten parte». Bestalde, aurten gogora ekarri dute, apirillean, sakabaketa 20. urteurrena.



## Euskal ohiturak eta aniztasuna

**KULTURA** • Udako festen ostean, udazkenean kultur aste eta asteburuen garaia izaten da. Baliarrainen, esaterako, Kultur Asteburua ari dira ospatzen. Ekitaldien baitan, atzo arratsaldean, baserriko lanak eta herri kirolak oinarri dituen haurrentzako jolasak izan ziren. Gaztetxoek ez ezik, helduek ere hartu zuten parte hauetan. Ibarren berriz, Kultur Truke Hama-bostaldian daude, eta atzo futboleko partidak izan ziren Belabieta kiroldegian. Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukraniako taldeak aritu ziren lehian. Goizean kanporaketak jokatu zituzten eta iluntzean berriz, lagun arteko partida bat, eta finala. E. EZBEZA



## Gorostidiko egoera ez da hobetzen

**TOLOSA** • Gorostidi enpresakoek, irtenbiderik ezean, protestekin jarraitzen dute. Atzo goizean, Triangulon, Babarrun Azoka ospatzen zen bitartean, elkarretaratzean bildu ziren hainbat lagun, bizi duten egoera latza salatzen. Langileek duela egun gutxi jakitera eman zutenenez, gaur egun, 168 familien etorkizuna arriskuan dago, lanean jarraitzen dute eta ez dizkiete soldatak ordaintzen eta gainera, 60 langileren kaleratzea eta enpresa itxtearen mehatxua ari dira jasaten. EREa onartzean zuzendaritzatik, enpresaren eta langileen lanpostuen etorkizuna bermatuko zituztela adierazi zieten baina ez da horrelakorik gertatu adierazten dutenez. E. E



Elizaren behean dauden belardietan aurreikusten ditu Plan Orokorrak eraikiko direla Altzo Muinoko etxebizitza berriak. I. G.

## 40 etxebizitza egiteko aukera emango du Plan Orokor berriak

**Altzo** » Etxebizitza horietatik 24 tasatuak izango lirateke; beste berrikuntza udaletxe ondoan kokatuko den erabilera balioanitzeko eraikina da.

IMANOL GARCIA

Altzoko Udalak Plan Orokor berriari hasierako onarpena eman berri dio. Datozen egunetan espero da aldizkari ofizialean argitaratzea eta hori gertatzen den egunetik hasita hilabeteko epea izango da helegiteak aurkezteko. Aurreko astelehenean bilera ireki batera deitu zitzairen herritarrei Plan Orokor berriak ahalbidetuko dituen aldaketak azaltzeko. Horietan nabarmenenak dira 40 etxebizitza berri egiteko aukera izango dela, horietatik 24 tasatuak, eta udaletxearen ondoan erabilera anitzeko eraikina egitea aurreikusten dela.

Datozen hamar urteetan herria ordenatuko duen dokumentua da Plan Orokorra. Iñaki Murua alkateak azaldu duenez, «gaur egun hiri-lurra dena agortuta dago. Eraiki daitekeen guztia eraikita dagoela. Lur-zati bat gelditzen da, bi etxebizitza egiteko, baina beste guztia agortuta dago. Horrek behartu gaitu plan berria egitera».

Muruak gaineratu duenez, plan horren helburu nagusia «herritarren beharrei erantzuna ematea» da. Beharrei «aurrea hartu behar diogula iruditzen zaigu», dio alkateak. «Gauza hauek oso luzera joaten dira eta konturatzeko zarenarako beharrak daudela eta plana hasi

eta bukatu arte, denbora asko joaten da».

Azken urteotako lanak «emaitza oso onak» eman dituela uste du alkateak. Herrian jende gazte ugari dagoela dio eta herri giroa bizitu egin dela. «Egun gazte batek herrian gelditu nahi badu ez du aukerarik», gaineratu du. Horregatik etxebizitza eskaintza berria egingo dute.

### Aldaketak hiru gunetan

Plan Orokorrean aurreikusten diren aldaketak hiru gune nagusitan dira: Altzo Muino, Altzo Azpi eta Amategi. Altzo Muinon 24 etxebizitza tasatu eta lau etxebizitza bifamiliar libre egitea planteatzen da.

### Etxebizitza tasatuak: 90 m<sup>2</sup>koak, garaje eta trastelekuarekin, eta 180.000 euro ingurukoak

Elizaren atzealdean, azken etxe berriak egin diren segidan egingo ziren etxebizitza horiek.

Muruak azaltzen duenez, «gure iritzi, agian guk nahi baino hazkunde handiagoa da. Baina hor nola kale berri bat sortu behar da eta horrek karga urbanistikoa handiak dauka. Hori bideragarria izateko zenbakiak zehazten dute

gutxienez zenbat etxebizitza egin behar diren».

Etxebizitza kopuru hori egiteak herrian %32ko hazkundera suposatzen du. «Azken finean zenbakiak agintzen dute», dio alkateak. «Lurzorua merkatuan prezio bat dauka; eraikitzeak beste prezio bat dauka, eta horrek ematen ditu zenbaki jakin batzuk».

Etxebizitza tasatuei dagokionez, Udalak jartzen ditu baldintzak. Lehen tasuna herritarrek izango dutela jakinarazi du Muruak. «Orain dagokigu guzti hori zehazten joatea», azaldu du. Etxebizitza tasatuak 90 m<sup>2</sup> ingurukoak izango direla eta garaje eta trastelekua izango dituzte. Egindako kalkuluaren arabera, 180.000 euro inguruko prezioa izango dute.

Beste 8 etxebizitza, hauek libreak, Altzo Azpin egitea planteatzen da. «Gune hori biziberritzea da helburua», dio Muruak, «nahiko utzita dagoen auzoa delako». Urbanizazio bat planteatu eta iragarritasunaren aldetik baldintz hobek proposatzen da. Elizaren aurrean izango litzateke etxebizitzaren kokalekua, errepidearen bestaldean.

Foru Aldundiak Altzo Azpitik doan bidea zabaltzeko proiektua du. Aldundiak bidea zabaltzearen kostua bere gain hartuko luke eta gero urbanizatu egin behar da gune hori. Urbanizazio kostu horri buelta emateko aurreikusita da etxebizitzak egitea.

Beste gune aldaketak aurreikusten dena Amategi da. Kasu ho-

retan enpresa batek eskatu duen hazkundera da aurreikusten den aktuazioa.

### Eraikin berria

Etxebizitza berriez gain, beste proiektu garrantzitsua erabilera anitzetarako eraikina da. Udaletxe ondoko plazaren maila berdinean terraza handituko da eta horren azpian joango litzateke eraikina. Modu horretan, egun plazatik dagoen ikuspegia mantendu egingo litzateke. Oraindik zehaztu gabe dago zer ekipamentu izango litzatekeen. Liburutegia eta KZgunea dira aurreikusten diren batzuk. Egun bi zerbitzu horiek udaletxean daude. Muruak azaltzen duenez, «hainbat ekintzetarako txiki gelditzen da udaletxeak dituen aukerak eta beti somatu izan dugu lokal falta». Eraikin berriak 600 metro karratu inguru izango litzateke. Plan orokorra behin betiko

### Plazaren maila berdinean terraza handitu eta horren azpian egingo litzateke eraikin berria

onartu arte beste urtebete pasatu daitekeela azaltzen du Muruak. Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren hilabeteko epea izango da helegiteak egiteko eta gero helegite horiek aztertuko dira. Horren ondoren osatzen den testua gero Foru Aldundiak onartu behar du Plan Orokorra behin betikotasuna izateko.

## Elorri frontoiaren ate-irekitzea egingo dute hilaren 28an

**Alegia** » Intxurre pilota elkartearen aurkezpena eta Bergara eta Alegiako pilotarien arteko partidak izango dira.

### ERREDAKZIOA

Alegiako Elorri frontoiaren berri-tze lanak bukatu eta gero, hilaren 28an, larunbata, ate-irekitzearen eguna antolatu dute. 17:00etan hasiko da ekitaldia eta bertan Intxurre pilota eskolaren aurkezpena egingo dute eta gero Bergarako eta Alegiako pilotarien arteko partidak izango dira.

Orain gutxi Alegia, Altzo eta Ikaztegetako pilota eskolak elkartu dira eskola bakar bezala aritzeko. Aurretik Alegiako eskolak zuen izena hartu du, hau da, Intxurre izena, eta eratu berri den elkartearen aurkezpena egingo dute. Bestalde, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Herriarteko Txapelketa irabazi zuten Bergarako pilotariak eta hurrengo herriarteko txapelketan ateratzeko prestatzen ari diren pilotari alegiarrak ariko dira lehian.

## Laburrak

### ONA txartela eskatzeko aukera KZgunean

**ALTZO** » Hil honetako astelehenean Altzoko udaletxean dagoen KZgunean, ONA txartela eskatzeko aukera izango da. Beraz, bihar eta hilaren 30ean egin ahal izango da hori, 16:00etatik 20:00etara. ONA txartel horrek Osakidetza txartelak eta Herritar Txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak txartel bakar batean batzen ditu. Beraz, sendagilearengana joateko balio du eta on-line tramiteak egiteko ere bai. ONA txartela doakoa da.

### Plazako zeharkabidea eta frontoira doan bidea, itxita

**ALTZO** » Altzo Muinoko plazako zeharkabidea eta frontoira doan bidea itxita izango dira bihar eta etzi. Irigarritasun plana betetzeko egin behar diren lanak burutuko dituzte bi egun horietan.

### Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du etzi

**TOLOSA** » Ohiko Osoko Bilkura egingo du etzi Udalbatzak, 08:00etan. Bertan hainbat gai-jorrituko dituzte, tartean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren inguruko adierazpen instituzionala.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirolak

■ **Amasa.** 11:00etan Amasako XVII. Mendiatioia.  
■ **Asteasu.** Euskadiko Aizkora Txapelketako kanporaketa Usarrabi kiroldegian 17:30ean: Floren Nazabal, Antonio Senosiain, Luis Txapartegi, Aitor Senosiain, Juan Jose Lopez, Jexux Mari Mujika, Iñaki Azurmendi, Joseba Otaegi, Joxe Mari Olasagasti, Jose Angel Zubiaga eta Daniel Vicente.

### Jaiak

■ **Albiztur.** San Gregorio jaiak: 11:15ean meza nagusia San Gregorio ermitan eta 12:30ean toka txapelketa herriko plazan.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Babarrun Astea: XXIII. Lehiaketa Gastronomikoa Zerkausian 08:30etik aurrera, sari bana-keta 13:00etan eta herri bazkaria 14:30ean.  
■ **Tolosa.** Liburu azoka San Franzisko pasealekuan.  
■ **Villabona.** Jesusen Bihotz Sakratuaren elizaren mendeurrena: meza nagusia Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainarekin 11:30ean.

### Musika

■ **Villabona.** Xexili eguna: 10:00etan txistulari, dultzainero eta trikitilarien kalejira, 11:00etan tailerreko haurren abestia plazan, ondoren banda, orkesta eta eskusoinu taldeen kontzertua, jarraian, dantzarako gunea, 12:00etan dantza gunetik plazara bertan tailerrak pailazoan laguntzarekin, 13:30ean

tailer eta goizeko ekintzei amaiera, 14:00etan bazkaria, kiroldegian, ondoren kantu gunea, 17:30ean haurrentzat DJ baten eskutik musika plazan, 18:30ean Loatzoko ikasle eta ikasle ohien kontzertuarekin bukaera.

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak, Isidro Larrañaga akordeo orkestrak eta Udal Txistulari Bandak Santa Zezilia kontzertua eskainiko dute Leidor aretoan 12:00etan.

### Kultur ekitaldiak

■ **Aduna.** *Pantxika ta txinparta ederra zalaparta* pailazoak 17:00etan frontoian eta barrikotea, taloak, gartzain erreak 18:30ean frontoian.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Piratas del Caribe: en el fin del mundo* Bonberenean 19:00etan.  
■ **Tolosa.** *G force* Leidor aretoan 17:00etan. *Eta 500 dias juntos* 19:30ean eta 22:00etan eta bihar (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

#### Bihar

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# Gaztelekua guztiontzat



Egunari amaiera emateko, kontzertua izan zen atzo iluntzean, Gaztelekuan; jendea zain egon zen hasteko. E. EZBEZA

### ERREDAKZIOA

Egun guztian zehar Gaztelekua-ren diseinu parte-hartzailearekin lotutako bigarren jardunaldia ospatu zuten atzokoan. Helburua, aurrekoan bezalaxe, herritarrek Gazteleku proiektuaz informaztea, iritzia ematea eta ondo pasatzea izan zen eta bertaratu zirenen artean lortu ere lortu zutela esan daiteke.

Lehenengo saioa, 12:00etatik 14:00ak bitarte egin zuten eta bigarrena 16:00etatik 18:00etara. Ekintza hauek Gaztelekuan bertan (haurtzaindegi zaharrea) eta Bearzana frontoian inguruan egin ziren.

**Kontzertua, jardunaldia ixteko** 18:00etan, jardunaldiari bukaera emateko kontzertua eskaini zuten. Herriko nahiz aldameneko herritarrek nerabe batzuk osatu duten taldea ari zuen.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Irati.** Gaur 2 urte. Zorionak printxesa! Zure begiradan dizdira gure bihotzaren taupadak dira.

### Urte askoan polite!

**Ioar.** Ai, ai, ai! 3 urte! Zein handia egiten ari zaren. Segi hain maitagarria izaten. Muxutxoak izaberen partetik.

### Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29€**

Tolosako xaxuak  
Txakolin txokolata  
Jagurt turroia masusta gorriarekin  
Aktikoa eta mertxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50€**

Mandarina turroia boilur zurarekin  
Txokolata turroia alimendekin  
Mertxika turroia txokolatarekin  
Jagurt turroia masusta gorriarekin

### EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

Saskia **4€**

**LUR-LANEN ERAGILEA**

Osoa-hatillo andi gatzua, 100 g  
Nafarroako giletzeta, 15 g  
Basotxerri besoa, 100 g  
Etxeko txerri txerri 100 g  
Sagar dulzera, 100 ml  
Agiñako pipernak, 150 ml  
Cetariako hegaltzera, 100 g  
Zaindari zurik, etxeko txerriak, 3-7 ak

Miazabato andi gatzua, 200 g  
Fale gris bihotza, 15 g  
Etxeko txerri txerri 100 g  
Basotxerri besoa, 100 g  
Miliatze ezka, 100 g  
Agiñako pipernak, 150 ml  
Cetariako antoxoa, 100 g  
Cetariako hegaltzera, 100 g  
Pikillo ezka, 200 g

Saskia **59€**

## Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943 30 43 45  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info

saskia!



AUKERA EZAZU. BIZI! EUSKALDEKOZ **berria**

Bidalaketa gastuak doan

**Zuri arrain**

iturgintza & bainugelak